



# GABON

# ABESTI

# SARIKETA

Antton Mitxelena

Ez da nolanhiko gertakizuna ekintza kultural bat martxan jartzea. Nekeza gertatzen da bizirik irautaraztea. Eta miresgarria, bizitza luze eta emankor baten garapenean, jaiotzaren 50. urteurrena ospatzera iristea.

Hori da, hain zuzen, Ereintzak antolatzen duen Gabon Abesti Sariketarekin gertatzen zaiguna eta oroipenetara ohitzen ari bagara ere, ez da aipatu gabe, pasatzen uzteko modukoa.

Sariketa honen lehen urratsak oso argiak ez diren arren, itxura batean, herriko bikarioa zen D. Roberto Agirre Etxeberriaren iradokizun eta eraginarenpean eman omen zituen. Badirudi, Antontxu Sainzek 1994. urteko Ereintzaren informean dionari jarraiki, D. Robertok parrokiako gazte mugimendutan zihardu-

ten arduradunei, horrelako zerbait egiteko proposamena luzatu ziela *"Gabonak girotzeko eta kalera ateratzeko"*.

Haserako leihaketa horiek apalak gertatu ziren eta eskolarteko koroari zuzenduta. Musikaren ikuspegitik, exijentzi handirik ez bazuten ere, duintasunez egiten zaindu zen, epaimahaikede- en izendapenetan argi ikus daitekeen bezala. Lan horretan aritutakoen izenak aipatu besterik ez da, horretaz ohartzeko: José M<sup>a</sup> Iraola, Julian Lavilla eta Pedro Korostola jaunak, D.Juan Bautista Olaizola eta D. Jesús Kerejeta eta abar.

Lehenengo urte hauetan sariketa honen antolamenduaren ardura Parrokiaren inguruan aritzen ziren talde desberdinen esku izan zen: Luistarrak, Mariaren alabak...ea.



Hijas de la Cruz  
ikastetxeko neska  
taldea. 1949 urtea.

Ereintzak 1960. urtean hartu zuen bere ardurapean sariketaren antolaketa, herri mailako izaera mantenduz, baina eskolarteko koroetara zuzendu ordez, era eta adin guztietako taldeei irekita.

1966. urteko sariketari Fatimako Andra M<sup>a</sup> eleizako koro parrokiak parte hartu zuen, baita irabazi ere. Koro horren zuzendaria D. José Luis Ansorena genuen. Gaur eguneko Andra Mari Korolaren hazia erein berria zen. Ez genuen asko pentsatzen orduan, gertakari historikoa bizitzen ari ginela.

1967. urtean bailara mailako sariketa bilakatzea erabaki zuen Ereintza elkarteak, Hondarribia, Irun, Lezo, Oiartzun, Pasaia eta Erreneriako koroentzat. Egitura berri honen lehenengo urte horretan 15 koroek parte hartu zuten, bi mailetan banaturik. Leihaketa Eleiz Nagusiaren atarian ospatu zen eta aurkezle lanetan Xabier Olaskoaga aritu zen, beti bezain egoki eta langile.

Ondorengo urteetan, 1968-tik 1973 bitarte, sariketak unerik beltzenak ezagutu zituen, 1968, 1970 eta 1971ean ez baitzen ospatu eta beste urte horietan taldeen partaidetza oso urria izan zelako. Urte zailak izaki.

1974. urtetik aurrera sariketak berriro gora egiten du, koroen partaidetza handitu egiten dela eta erakunde desberdinen babesak sentitzen direla. Lehenagoko Gipuzkoako Aurrezki Kutxaren laguntzaz gain, Erreneriako Udalak dirulaguntzaz babesten du 1981 urteaz geroztik.

1985. urtean sariketa probintzia mailako gertakizuna da eta hurrengo urtetik aurrera bultzada handia ezagutuko du, Gipuzkoako Koro Elkarteak mahaikideak izendatzeko ardura hartzen duenean, inoiz desagertuko ez badira ere emaniko erabakiei buruzko errezeloak.

1989. urteaz geroztik sariketek bere egoitza aldatuko dute, hemendik aurrera Polikiroldegian ospatuko direlarik.

1992. urtean aurkezpen lanetan Martín Otazok erreleboa hartzen dio Xabier Olaskoagari. Zorte on lehenengoarentzat eta mila esker bigarrenari.



"Mendizaleak" taldea. 1966 urtean.



"Garrantzi" taldea

Ibilbide luze , gorabehera askorekin, baina bizirik eta sustraitua gure herrian, Gabon Abesti Sariketa errealitate bat da. Joandaneke Eguerritan bere urrezko eztaiak ospatu zituen sariketa honek eta bizitza luzea opa nahi genioke hemendik, oraindik ere.

Gabon Abesti Sariketaren 50. urteurrena iazko Inozente egunean ospatu zen. Goizetik 13 koro aritu ziren, haur mailan. Arratsaldean 11 izan ziren, helduen mailan aritutakoak. Partaidetza, beraz, oso handia. Entzulegoa ere oso ugaria izan zen. Horregatik, koralistei ezinezkoa gertatu zitzaizen polikiroldegiaren aulkietan ezartzea. Ezin denak kabitu.

Koro horietatik zortzi ziren Errenteriakoak, bat haurren mailakoa eta helduen mailakoa beste zazpiak.

Epaimahaikideak, Gipuzkoa guztitik etorritakoak, honako hauek izan ziren:

- Xabier Barriola (Zumarragatik)
- Karmele Iriarte (Donostiatik)
- Juan José Ocon (Donostiatik)
- Gorka Aierbe (Ordiziatik)

Emaitzei dagokienean, hau da beraiek emaniko klasifikapena, historikoa gertatzen dena, 50. urtemugakoa baita:

Haurren Maila	Helduen Maila
1. BASAKAITZ (Berastegi)	1. PAKEZALEAK (Errenteria)
2. GOIKO -BALU TXIKI (Arrasate)	2. ELKORA (Donostia)
3. OSKARBI-TXIKI (Billabona)	3. GAZTE-KEMENA (Errenteria)
4. TXILINTXA (Bergara)	4. GARRANTZI (Errenteria)



Izan zuen, dena den, 50. urteurrenaren ospakizunak berezitik. Jaialdia oso ederra eta unigarrria gertatu zen.

Bertan, ospakizunaren goratzarre moduan, “PINS” bana eskeini zitzairen partehartzaile guztiei, baita hurbildu zen publikoari ere. “PINS” horren sortzailea Ibon Izagirre izan zen.

José Manuel Tife jaunak, Andra-Mari koralaren zuzendariak Hiru Gabon Abesti Herrikoiak (Oi Betlehem, Adeste Fideles eta Ator-Ator) zuzendu zituen. Talde guztietako abeslariak elkar hartuta abestu zituzten, Errenteri Musikalaren Udalkontserbatorioko metala-taldearen laguntzaz.

Ereinza Dantza taldeak, Marian Bravo eta Mikel Kokak asmatutako koreografiak dantzatu zituen, “Mesias sarritan” eta “hemen heldu gerade” gabon abestien musika oinarritzat harturik.

Eta amaieran omenaldien garaia iritsi zen:

- a) Xabier Olaskoaga Jauna omendu zuen antolaketak, alor guztietan eginiko lana eta eskeinitako laguntzarengatik: Aurkezle bezala, antolatzaile bezala, testu moldatzaile bezala eta baita leihakide bezala ere. Aipatzekoa da, aurtengo edizioan, abeslari bezala, Pakezaleak taldean parte hartu zuela, garaipena lortuz.
- b) Antolaketak, ematen dioten laguntza eskertuz, plaka bana eskeini zien, Errenteriako Udala, Foru Diputazioa, Kutxa Kultur Fundazioa eta Yosu musika dendari.
- c) Ekitaldiaren amaiera gisa, Errenteriako Abesti Taldeek omendu nahi izan zituzten Josetxo Oliveri eta Josu Izagirre, Sariketaren antolakuntzan egin duten lanarengatik. ✍